

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

012 telefonora deituta maiatzaren 25eko Europako hauteskundeetarako hautesle-eroldari buruzko informazioa jaso ahal izango da gaurtik aurrera

Nafarroako berrogeita hamar bat udaletako erroldetako behin-behineko zerrenden informazioa biltzen du, eta apirilaren 14ra arte aldatu ahal izango da.

Lunes, 07 de abril de 2014

Nafarroako Gobernuaren 012 infonavarra telefonora deituta, heldu den maiatzaren 25eko Europako hauteskundeetan parte hartzeko hautesle-eroldako zerrendei buruzko informazioa jaso ahal izango da gaurtik, astelehena, aurrera. Foru Komunitateko 498.679 boto-emailerri egin zaie deialdia.

Zehazki, Nafarroako administrazio publikoen 012 telefono-zenbakiak 46 udalerritako hautesleak barne hartzen ditu, hau da, 211.339 biztanle. Hautesleak behin-behineko erroldan agertzen diren ala ez jakiteko informazioa du, eta datorren apirilaren 14ra arte egongo da eskuragarri, herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Ondoren, behin betiko erroldari eta osatuko diren 751 hauteskunde-mahaietako kideen zozketaren emaitzari buruzko informazioa ere eskainiko da.

Honako hauek dira 012 zerbitzuak barne hartzen dituen udalerrriak: Adios, Antsoain, Aranguren ibarra, Barañain, Baztan, Bera, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Cadreita, Kaseda, Zizur Zendea, Corella, Eneritz, Esteribar, Etxauri, Ezkabarte, Uharte, Ibargoiti, Izagaondoa, Jaurrieta, Leiza, Lerin, Lizoain-Arriasgoiti, Lodosa, Los Arcos, Milagro, Elo, Noain, Obanos, Erriberri, Tafalla, Tirapu, Ukar, Untzitibar, Urrotz Hiria, Uterga, Eguesibar, Deierri, Valtierra, Viana, Alesbes, Atarrabia, Zizur Nagusia eta Zuñiga.

Bestalde, Iruñean eta Tuteran erroldatutako hautesleek 010 telefono-zenbakira deituta jaso ahal izango dute informazio hori, eta, gainerako udalerrietan, kasuan kasuko udaletxean.

Telefono bidezko arretaz gain, Nafarroako Gobernuak Europako hauteskundeetarako buruzko informazio orokorra jasotzen duen [web-orri](#) bat



argitaratu du.

Nafarroako datuak

Esan den bezala, Nafarroak 498.679 hautesle ditu, eta horietatik 475.263 Foru Komunitatean bizi dira eta 21.656 atzerrian, [Estatistikako Institutu Nazionalak \(EIN\)](#) emandako datuen arabera. Bertan bizi direnen artean, Europar Batasuneko 21 herrialdeetako eta Nafarroan bozka dezaketen 1.760 herritar daude. Errumania (332), Bulgaria (328) eta Portugal (316) dira jende gehien duten herritartasunak. Atzeta daude Frantzia (225) eta Italia (170).

Bestalde, atzerrian bizi diren nafarrak 118 herrialdeetan daude banatuta. Horietatik 6.721 Argentinan daude, 2.487 Frantzian, 1.657 Mexikon, 1.286 AEBetan, 1.112 Txilen, 1.023 Uruguain eta 963 Venezuelan; gainerako herrialdeetako koloniak askoz txikiagoak dira.